

2020. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2019ko urriaren 18an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2019/12/23. 244. zk.

## **ORDENANTZA FISKALA, KIOSKOAK BIDE PUBLIKOAN JARTZEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA**

### **1. artikulua: OINARRIA ETA IZAERA**

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabilteko eta Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoagaz bat etorruta, herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasea ezarri da, bide publikoan kioskoak jarteak dakarrena hain zuzen be. Tasa hori ordenantza fiskal honek eraenduko dau, eta haren arauak Foru Arau horren 21. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa bete beharko dabe.

### **2. artikulua: EGITATE EZARGARRIA**

Herri jabariaren aprobetxamendu berezia edo erabilera pribatiboa da tasa honen egitate ezargarrria.

### **3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA**

Subjektu pasiboak dira lizentziak edo emakidak jasoten dituen pertsonak edo erakundeak, edo aprobetxamenduaren onuradunak, baimen egokirik barik gauzatu badira.

### **4. artikulua: TASA KUOTEA**

Hauexek osatuko dute tasa kuota:

- a) Emakidaren kanona, emakida barriak aplikatzeko.
- b) Hiruhileko tarifa m2ko aplikatzeko, ordenantza hau onetsi daneko indarreko emakidetarako.

### **5. artikulua: KANONA ETA TARIFAK**

Enkantearen errematearen tarifa adjudikaturiko eremuari aplikatzearen emoitza zenbatekoa izango da emakidaren kanona, eta metro koadroko lizitazioaren gutxieneko kopuruak izango dira aldean arabera, adjudikazio aldian 10 urteko danean:

	<b>2020(€)</b>
1. aldea	650,10
2. aldea	477,72
3. aldea	308,09

4. aldea	260,02
5. aldea	207,46
6. aldea	158,26
7. aldea	137,35
8. aldea	123,21
9. aldea	85,36
10. aldea	67,73
11. aldea	48,93
12. aldea	26,53
13. aldea	4,84
M <sup>2</sup> -ko edo zatika hiruhileko tarifak, ordenantza hau onetsi baino arinagoko emakidei jagokezanak, honeexek dira:	
- Lamera	70,18
- Tala	6,74
- Erribera	13,50

Instalazio barrien kasuan, 10 urtetik gorako aldiaren, lizitazioaren gutxienezko kopuruak azterketa honetan agertzen dan alde muetaren eta erabilera muetaren arabera izango da m<sup>2</sup>ko: "Herri jabariaren aprobetxamendua eta erabilerearen tasearen balorazioaren ganeke azterketea".

## 6. artikulua. SORTZAPENA

Tasa ordaindu beharra sortuko da:

- Erabilera pribatiborako herri jabariaren adjudikazioaren unean.
- Adjudikazioaren egunaren hurrengo hiruhileko naturalaren lehen egunean eta gero hiruhileko naturalaren lehen egunean emakidak dirauen bitartean.

## 7. artikulua. KITAPENA ETA ORDAINKETA

Holan ordainduko da tasa:

- Bide publikoaren aprobetxamendu barriak emoten diranean, lizentzia edo emakida eskatzen dan unean.
- Baimendutako aprobetxamenduak diranean, tarifako aldi natural bakoitzaren lehen egunean.

## AZKEN XEDAPENA

Kiosko honeen araubideari kalterik egin barik ulertuko da ordenantza hau: Lamera 2.